



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2011ko EKAINA

FILOSOFIAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2011

HISTORIA DE LA FILOSOFÍA

**Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar diozu.**

**Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

## A AUKERA

“- Jakina bada ez dela zorionduna nahi duenaren jabe ez dena, lehen ikusi dugunez, eta inor ez dabilela aurkitu nahi ez duenaren bila, eta [akademikoak] beti egiaren atzetik dabiltzala, garbi dago, beraz, egia lortu nahi dutela, egia aurkitu nahi dutela. Baina ez dute aurkitzen. Porrot egiten dute, beraz, haien ahalegin eta asmo guztiek. Ez dute, bada, nahi dutena eta, beraz, ez dira zoriontsu. Baina inor ez da jakintsu zoriontsu ez bada; akademikoa, beraz, ez da jakintsua”.

AGUSTIN HIPONAKOA: *Bizitza Zoriontsuaz*

## GALDERAK

### 1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Laburtu ezazu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).
- 1.2. Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzarako).
- 1.3. Agustinen iritziz, jakintzaren eta zoriontasunaren artean lotura estua dago, eta lotura horren gunean Jainkoa dago. Garatu ezazu disertazio labur bat, gutxienez Agustinen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanaz. Ondoren, egin ezazu gogoeta bat, zure gogoeta, tesi horri buruz. (3 puntu) (200-300 hitz).

### 2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

- 2.1. Askatasuna eta gaizkiaren arazoak Agustin Hiponakoren omenpentamenduan. (1,5 puntu) (Gehienez: 150 hitz).
- 2.2. Agustinen Historiaren Filosofia: lurreko hiria eta Jainkoaren hiria. (1,5 puntu) (Gehienez: 150 hitz).
- 2.3. Fedea eta arrazoimena Tomas Akiñanoren pentamenduan. (2 puntu) (Gehienez: 250 hitz).



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2011ko EKAINA

FILOSOFIAREN  
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2011

HISTORIA DE LA  
FILOSOFÍA

## B AUKERA

“Eta jainkozko probidentziak gizateriaren mugak bizitza honetan gozatu dezakeena baino gorago dagoen ongia agintzen dienez gizonei, beharrezkoa da arimari gorago dagoen ongia aurkeztea, arrazoiaren ahalmenak baino urrutiago doana. Horrela ikasiko du zerbaitetarako desioa izaten eta oraingo bizitzaren gainetik dagoenera arduratsu jotzen. Eta hori kristau-erlijioak bakarrik duen zer baita da, kristau-erlijioak bereziki ondasun espiritual eta betierekoak agintzen baititu”.

TOMAS AKINOKOA: *Summa contra gentes*

## GALDERAK

### 1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Laburtu ezazu pasarteak, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).
- 1.2. Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzarako).
- 1.3. Tomas Akinokoaren iritziaz, kristau-erlijioak bakarrik agintzen dituzten arrazoien ahalmenaren gainean dauden ondasun espiritualak betierekoak. Eman ezazu Tomasen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat gutxienez. Ondoren, egin ezazu gogoeta bati, zure gogoeta, tesi horri buruz. (3 puntu) (200-300 hitz).

### 2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

- 2.1. Jainkoaren izaera Tomas Akinokoaren pentsamenduan. (1,5 puntu) (Gehienez: 150 hitz).
- 2.2. Tomas Akinokoaren etika eta politika: lege naturala. (1,5 puntu) (Gehienez: 150 hitz).
- 2.3. Fedea eta arrazoimena Agustin Hiponakoaren filosofian: inetsi, ezagutzeko. (2 puntu) (Gehienez: 250 hitz)